

U J U É <sup>1</sup>

## BERE KONDAIRA LABURCHO BAT

## VI.

**Eliza, Gain ta Barren**

Ondar-arri ederki leunduetakoz egiñetako pareta sendoduna da, mendiyaren kasko kaskoan dagoen Usa-teche<sup>57</sup> biotz-lapur au, Iru-diña arkitu zan zuloa Aldare-nagusi-erditzat dala paretak egiñak nola baitauden, sort-aldetik mendiya du paret; eguerdi aldetik, atze-samarrian dauka atia, alako atari-aldearekin, non, Priore-tegiya aurrean ezpaleuka, bi pauso batere luzechoak ematen litukienari, erakutsiko lekiokiena zenbat luzekoa den Ujué-ren goitik berakoa: sortaldetik ibill-leku edo klaustro bat, dana, bage baño baranda batez ere, lan aundiko arri-pikatuz egiña dago: iparretik berriz zabaldegi bat dauka Errege-eliz onek; ziñaz kanpotik arma-eche bat ematendu bere bi torriekin, aundiyena almen-dunare baitu.

Sarrerako ata-markua da gauza guztiz lan aundikoa ¡aik loriak! arriyan ta ¡aik gauzak! aren ederki atereak, aren ongi iraun-eraziya. ¡A, esan nuen nik, ikusi nuen bezain laister: nola ezagundan emen egualdiyen eortzi ta urtien ortzka jantzallien aldian zeñen ondatzallea den gizonaren esku gogorra. Ain dago, choko choko artan, ederki gordia.

Sarrera bakarra dauken ontatik sartu ta eskui, jira-erdi egitearekin gelditzen da bat aldare nagusiyari begira. Barrenez, Eliz-au Gurutze Santu Lezokoarena baño chikišeagoa izan diteke. Nik ekarri

(1) Véanse las notas de la pág. 558 del tomo anterior.

dedan espa-naya da, orain kare-esnez<sup>58</sup> churituia egon arren, egin zanean edo geroago, paret oitan pasaizuren batzuek pintatu ote ziran; zergatik organo-konponketan aditu diradenean, alako gauz-toki<sup>59</sup> bat kendutako lekuan azaldu da paret, baña ez churiya, ta ikusten dira ondo irakurri ezin diran letra asko ta ezagutzen ez diran zenbait pigura.

Otaigope<sup>60</sup> batekoa da, apaiz-tokira<sup>61</sup> bitarte. Emen iru arku dira betik gora atereak, erdikoa nagusi-seago dala beste ertzetako bi mendeko-seagoekin: betik asi ta erdiz goitirañako burni-barra sendoz egi-ñezko atekin daude. Arku oyen uztai-buruak<sup>62</sup> ez diran ezkerre berriz laberiraño<sup>63</sup> igotzen, gelditzen da, oyen gallurretik Elizaren barrren-goyeneraño alako paret-kopet<sup>64</sup> bat, ta emen arkitzen dira: erdikoaren gañean lenago<sup>65</sup> esan degun laurkiña: ekustzallearen ezkerretikakoan bigarrena<sup>66</sup> ta Gonzalo-ren, gero aitatuko deguna berriz, eskui-aldekoan. Aldare nagusi urreztatu<sup>67</sup> ta polita du. Irudiñ santan anchen dago, bere zulochoan, usochuri bat oñetan, semechoa magalean, aurrerontz begira ta bera eseri ta jarriya; azichoa ematen du arpegiz beintzat; ta, ala nai bada eman nion aundiyan ta ichuran Ondarrabia-ko Guadalupe-koaren antza.

Epistol-aldeko burni-langaz kanpotik, baña bert-bertan, dago Napar-erregien eskut-armaz goi dena apainduetako itz-egin-tokiya<sup>68</sup> aurrez aurre, paretian betatz berriz<sup>69</sup> berriz San Sebastian-en aldare, lanak bezela gauz aundirik esan nai ezagatik onako Santuaren burugañeko ol-biribilean daukan au dila mediyo zerbait diyona. «Aquí está el corazón del Señor Don Carlos II Rey de Navarra, año 1386.»

Kanta-leku<sup>70</sup> choill ederra-du: iñon guchitan (nik iñon ez oraindik) ikusten diran bezelako eser-lekuak bai anchen ¡zer lana! ta ¡zeñen ondo egiña! Errosarioko amabost gertaerak tarteka beste zerbaitekin daude alki-bizkarretan<sup>71</sup> arreta aundiyaekin ta ez noski egun guchiyen atereak.

## VII.

### **Napar-erregiak ta Ujué**

Erregien biotzak Jaunaren eskuetan egonik<sup>72</sup> erabiltzen ditu bere gogo gauzak eragiten, beste edozeñenak irabiltzen dituen bezela. Ikusi degu, Ujué-ren asieran, nola zegon errege bat ta agiyan lenda-bizikoa Ama maitearen sare-korapilluetan sartua; bada geroztikakoak etziran beste moduzkoagoak izandu. Ikusi degu Iñigo Aristaren Ujué-ganako arreta. Beste geyago erdi ikusi egin ta utzi ere bai. Badaki-

gu Ujué-ko erri-buruak, Pitillas-eko alkatetarako jartzen zitzaizkion irutatik bat bereisteko eskua bazuela, oroigera, sasi-anayak<sup>73</sup> Peña-len-en amildu ta ill zuanaren ondoren Napar-Aragoyetako buru izan zan Sancho Ramirez jaunak on-bereiskuntz<sup>74</sup> oso aundiz bete zituela, zeren Ujué-tarrak «izan ziran beren Jaun ta Erregetzat beste iñork baño lenago ezagutu zutenak<sup>75</sup>. Ez dira Karlos II<sup>en</sup> erri oneki-ko ongi-nayak aztekoak, ta azkenik, beti gogoan-garriya izain da Doña Leonor biotz-aundiko Erregiñ egiñ zuena Ujué-ren onian: kendu zizkan erriy' oni bai berarekin ta bai Leriñ-go konde Jaunarekin zer ikusi zuten zenbait kargakizun<sup>76</sup>. Ta au guztiya Ama Birjiñagatik, bai; baña erriyari: ¿zer etzioten egingo ain maite zutenaren Usategi kutun ari?

Len erri-ongilletzat esan diranak lajarik, zeren, aren baziran, onen ez ziran guchiago izango. Utzirik ere arako Kastillako Pedro Gogorrarekin adiskide bai, baña lagun izandu etzan Ujué-rena dei lekiokien Karlos Naparrua-ko bigarrena, Eliz-erri oyen omenagatik Ikastegi bat ere egiteko jarri zena, ta besterik ezin zuanean, bere biotzez soldadu bat baitzan bezela, Ama Birjiñaren beti-guardirako<sup>77</sup> etorri, ta usuak errege bat zai-tzalle ta erregea usochoak giriztua berriz gerta zitezen gelditua.....

Utzirik oik; ¿nork ez daki zer egin zuen, Echeko-andre onek bere-usategiko Jai-egunarekin ez bat ta ez bi goi-jai<sup>78</sup> ayek pasatzera eramane zuen Aitaren izen bereko-Karlos irugarrenak? Zillar-gauz asko egin zizkan Eliz oneri. Etzuen otzago izan izandu nai, Naparruako agintean sarri jarraitu zion Dona Blanka-k: ill baño bi urtez lenagotik 1439an egin zuen atzen-opamenean<sup>79,80</sup> agindu ta utzi zuen, bai ar-laban ezko<sup>81</sup> obi bat kanta-toki aurrean egiñik bere gorputza an sartzeko, baita iru zillarrezko argi-ontzi edo lanpara eragiñ ta Ama Birjiñaren aldare-aurrian beti irazekiyak egon zitezela ere. Geyago!.. Aski da. Errege baño ondo-egille geyago eziñ izan.

## VIII.

### **Eliz-ondasunak**

Ondasunak esan det, ez aberastasunak: *zazpi-zalerik* gaitz-pensa ez dedin baizik nori berian kalterik egin bage jakin dezan nondik zer atera.

Errege Jaunak ez ezik, Eliza Ama ere etzan atzera begira egondu, Eliz-nagusi edo Parrokiya au bere gordairuko ondasunez aberasteko.

*Real Basilica* deitu ziyon batek, Prior esan zuen besteak deituko zitzayola bere buru egiten zuen anima-zai Jaunari, ta eman zituen Irudi santu orreri aurrean, *Errosarioaren bost amarreko* esateagatik

110.000	eguneko barkamenak.
2.200	<i>Agur-Maria</i> esaten dan aldirorako, ta
100	berriz <i>Salve</i> bakoitzagatik.

## IX.

### Jende-billerak

Irabaziyak nola oñak ariñ baitituen, ala, onen ondore azkarrago ibiltzeak ez du zer arritu; ez da zer esanik ere, ni nijuenerako beintzat, nork bere buruaren ona arki nai izateak, zergatik, ortan bertan erakusten degu geren eginkizunen muga-barrendik gerala: itz batean, ta, beste aldera. Gure eskasiyaz kupiturik, Jaunak berak eman digu non ornitua noiz-nolaren giltza bere esku gelditzen duela, guri eskatzeko lekua eman ta bakarrik. Egitya da, sinistmendunentzat dirala gauz oik, baña ez dutenak irabazteko ere aiñ ekar-bide<sup>82</sup> patalak, ez diradela alde bat utzirik, oitan gerta oi dira bi atzen-piñ: illak piñtu, ta gañoak sendatu; au da: kanpokoak echeratu, ta echekoak pizkortu: siñistmena aurren bada ez da urruti icharopen-esperantza ere... Guazen aurrerá.

Gezurti-izena Aita Moret-i eman nai ez dionak sinistu biar du, etorri zirala Ujué-ra denbora batean, Aragoi-Kastilla-etako jendeak ez bakarrik, ta Balenzi-Kataloniya-koak baita Prantzes-ar zer esanik ez, Italia-koak ere.<sup>83</sup>

Gaurko egunian onen kanpotar ezpagabiltz ere, eziñ uka diteke Ujué dala oraindik ertz oitan dan erromeri-lekurik Jainkozkoena bezela,<sup>84</sup> jenderik geyena ere bildutzen dena. Neroni esan zait, ain jende-etorri aundiyak izaten diradela, non an bertan konfesatu utsa egiñak zortzireunetatik iragotzen diran egunak izaten dirala.

Zenbait dira urte-barrean egiten diran billerak: izendatuchoenak ara: 1<sup>koa</sup> *Bere egunari* dagokiona, Buruillaren 8an; 2<sup>na</sup> *Apostoluena* deritzana Pazko-mayatzeko goizean Olite-tik; 3<sup>na</sup> Untz-etik, Jesús ona bizitu zan 33 urtien izenean beste ainbeste gizonek gurutze bana bizkar-gañean dutela (ta onegatik deritzaye oni ta ondorengoai *Gurutze-eramallienak*, *Cruceros*) *Aste santuan* egiten dutena. 4<sup>na</sup> Pueyo-tik, *Pazko-mayatz astelenekoa* ta..... azkenik ta aundi-yena, *San Markos-tik urrengo igandean*, Olite ta Tafalla-koena.

## X.

**Gurutze-eramalleak.—Apostoluak.**

Zer dira oik? galdetuko da dudarik bage. Oitaz itzik egin bage ezin dagokiela derizkiot, Ujué-z egiten asten dana.

Gurutze-dunak Gurutze-tuak edo Gurutze-eramalleak, (Cruce-ros) dira inguru erriyetako gizasemeak, aberats edo pobre zar edo gazte, soñeko luze-banarekin edo gabe, oñutsik edo oñetakoekin, igotzen diranak Ujué-ra, bakoitza beren erriyetatik, gurutze bana bizkarrean eramanez. Ez da au utsa. *Glorias de Navarra* deritzon liburuan, On José Nadal Gurrea Jaunak dionez, orain irureunen bat urte dala oitako Tafalla-n jarri zen anai-artekoen itz-emateetatik<sup>85</sup> bat, Ujué-ra jua ta etorri oñez egitea da amar urtean.

Ara zer diyon batek<sup>86</sup> lerro-ibillera<sup>87</sup> onen gañean. «Solo viendo »la procesion se puede creer tanta austeridad y rigor de parte »de los concurrentes. Algunas de las cruces asustan por su peso, y »sorprende el ver caballeros y personas muy acomodadas acometer »esta dura peregrinacion.

»Tambien las señoras, (por supuesto sin cruces), concurren á »ella (procesion). Generalmente hacen la mitad del camino la vis- »pera, hasta San Martin de Unx, (habla de la de Tafalla y Olite), y »siguen luego detrás de los hombres.»

Apostoluak. Beste-gauzarik dira berriz oik. Pazko-mayatz larunbat arratseko amabi amabiyetan Olite-ko San Pedro-Eliz-atariyan nago. Apaiz bat atera da lenengo ordu-kanketakuan;<sup>88</sup> makill bat esku batian ta argi illun<sup>89</sup> bat bestian, burutik oñerako soin-illun,<sup>90</sup> bi begi-zulo arpegiyan beste zulorik ez duen batekin jantziyetako gizaseme bat ondotik..., gero bestia ta gero bestia..... amabi arte-raño, denak isillik; itz-aldicho bat apaiza Jaunak egin diye, ta Zidakos-ibaya<sup>91</sup> irago ta Moriones-iturriya barrena itzik atera bage, isillik bide guztiyan an dijuaz goiz-alderako Ujuén sartzera. Jauna artu biar dute, ta arpegiyak agertu dituzte. Geroñeago jechi dira *Kariño-ukullura*<sup>92</sup> ta ordu erdi batian gosaldu egin biar dute ta itz egin lezateke. Bukatu dute, ta, beren soin-buruarekin<sup>93</sup> arpegiyak estaldurik, isill-isillikan ostera Olite-ra datoz, eguerdiko amabiyetarako. Beranduago badatoz erriko ordu guziyak gelditzen dira, bada, Errege-eliz Santa Maria-koan Pazko eguerdiko amabiyak ari dirala, sartu biarreko oitura dute, ezkill-ots gor-garri<sup>94</sup> baten artean. Beste itz bi esan dizte orain apaiza Jaunak emen ta, bukatu da, jua ta etorri eder, ta egun pekatu-ariñgarri ura.

## XI.

**Milla-urte-urrena**

Ujué-ko Amaren maitatzalleak egun aundiya izandu zuten 1886ko Mayatzaren 26<sup>95</sup>; Mill-urren-jaya<sup>95</sup>. Jende-lerroak Obanos-en asirik, azitzen zijuazen Legarda, Muruzabal ta beste gañerako erriyak igarotzen zijuazen bezela. Eneriz-en arku eder bat ere alcha zuten. ¿Non etzeuden María-ren alabak ta etziranak kanta kantari?.. Ujué-ra denak... Olite, Tafalla, Tudela... nondik ez.

Ilzarbe-ko ibarra alai dago; pozez Ujué; danak daudez atsegiñ, ta badute zeri zergatik ongiyarekin gaizkiya garaitu dutelako siñaletzat an eraman baitituzte bada, beren Amaren oñetara estandarte<sup>60</sup> garbi, odol-gabe irabaziyetako churi-urdiñ baliotsu batzuek, beti an esaten egoin diranak. Ama entzun gegizu; ekarri giñuztenentzat laguntza!

## XII.

**Uste-lekua.**

Esan dana dago esaten, emen oitako jendeak, Ama maite Ujué-koagan uste aundiya duela; ta badue zeri. Lengo mesedeaz oroitu nai badute, ez dute beste egin-bearrik. Ama biotzekoaren ezker-aldeko arku-ertzean, aldarerontz biurtu ta belauniko dagon zurigeltsozko ezpata dun ari begiratu; ta zein den ezpadakite ta zergatik dagoen an, alcha bitzate begiyak len-aditzera eman dan<sup>97</sup> zimitz-buruaren gañera ta ez dute irakurri baizik

D. Gonzalo Bus-  
to ó Gustio  
Padre de Los  
siete in-  
fantes  
de Lara re-  
cobró aqui  
la vista.

Baña segurkiro ez dutela onen biarrik, zeren Ujué-ko Apaiza Jaun batek esan diranez, «danik ta egualdirik charrenaren planta jar dezala» «agerdedilla edozeñ odei-char»; aldarean bi argi irazeki

ta Irudiñ-santa agertuarekiñ, Ama Birjiñarena-deritzayon ezkillari bi miñgañ-dangetako<sup>98</sup> eman ezkeru, Jesús batian dana desegiten da ta ez da an erortzen ekaitzik.

### XIII.

#### Guziyagatik.

Gizon aditu batek esan du<sup>99</sup>. «Hoy van tan íntimamente unidas »estos dos nombres Zaragoza y la Virgen del Pilar, que es imposible conocer el uno y desconocer el otro. Parece como que el alma »de esta ciudad y el centro de su vida se encuentran en el Templo »del Pilar». Baño nik onekiñ ez det ezer egiten. Ujué-erriya Ujué-elizagatik asiya, elizagatik aunditua, elizagatik ondo jarriya, elizagatik dago zut eta biziyarekin. Ujué-erriya, elizik izan ezpazan izango etzanak, etzuen jakindu nola deitu, elizaren beraren izenarekin ezpada. Ujué izaten aiñ elizatik asi zen, non, etzuen onen bi-ziya besterik zuenik gogoan pasa; ere esan dedigun beraz bukatzeko, ain daudela bat bestiagan, non ezdan zein zein dan ezagun, dana dala bat, baña bat bizi, izate ta eriyotzaz... geyago ezin izan.

Ta nik ere onegatik biyen gauz ta gertakuntzak<sup>100</sup> ekarri biar izandu ditut nere lancho onen barrunera. Izan dedilla guztiya

JAINKO-EUSKERAGATIK.

\* \* \*

## AGER - GARRIYAK == NOTAS.



1 Pamplona.—2 Zaragoza.—3 Olite.—4 Ama Birjiñaren irudi bat izen ontako Erregearen denboran agertua ta orregatik onla deritzana: dago Naparrurekin Aragoi muga egiten duen mendi-asiera baten tontor tontorrian. Tauste deritzan Aragoi-erri batetik laister. Ta ura Napar-lurrian badagoere, Taustekoak dute agintea ta Eliz gauzetan Zaragoza-ko arzobispo-lur edo diócesis-kotzat jotzen da.—5 Mirábilis in altis Dóminus (Psalm. XCII. v. 4).—6 Los príncipes... vienen a visitar esta basilica, que por misterio divino está fundada.... estas son las expresiones que los reyes de Navarra usaban en las gracias concedidas á esta ilustre villa. El P. Moret, tom. 1, lib. 4, cap. 5, núm. 9. Annales de Navarra. (Discurso panegírico-histórico moral de la Virgen Santi-

sima de Ujué, pronunciado el día 8 de Setiembre del año 1836, por el Reverendo P. F. José de Areso, misionero de menores observantes, del colegio de S. Francisco de la ciudad de Olite).—7 derrumbadero.—8 precipicio —9 Bizbatu ta orregatik esaten det nik, Mogel Jaunak diyolako zera..... el tiempo todo lo ha confundido y dividiendo ahora la Nabarra en montaña y ribera, se dice un gran desatino. (Los Vascongados, su país, etc.. etc., por el Ilmo. señor D. Miguel Rodríguez-Ferrer: Comprobante núm. VI, pag. 192).—10 enemiga del enemigo.—11 para-rayo.—Turrís David..... mille clypci pendent ex ea..... (Cant. cantic. cap. IV. v. 4).—13 *Ait-zatia*: itzez itz, *patri-monio*: la-tiñezko *patris* ta *munus-tik* etorriya: *bere-puska* berriz, itz ark esan nai duen gauzaren arauz antolatua da, onela deritza izen beres batekin Eliz oni, *Patrimonio de María* —14 Ujué-k Usoa-paloma-tik etorri biar duela dudarik ez dago. Usua ez da besterik, Usoa baño errazagoko itz-bat. Beste progak lajarik batera ta aski da; antzinako sillu bat da Aita Villafañe Jesustarrak, bere Ujué-ko Ama chit Santaren Kondairan dakarrenez, ertzean zionak: *Sigillum concilii Sanctæ Maria de Usoa*.—15 Nik uste Euskal denboran Untz-yedra, deituko ote zan, benepen ala esan naiko zutela nago.—16 este-sur-sud-este.—17 noche precedente.—18 en lo laborable.—19 por obra.—20 porcion de España.—22 ante secular-patriarcal ser-modo de vivir-propio.—22 todo-vidente.—23 dique.—24 primera victoria-comienzo de España.—25 ots-itza—voz onomatópica.—26 pesar, mal de pérdida.—27 como corriente.—28 Finisterre.—29 Ronces-valles.—30 hilo eléctrico.—31 chispa celeste.—32 pasion, amor-patrio.—33 fraternizadora—34 Curso de Lecciones de Historia de España ó estudio Crítico-filosófico de todas las épocas y sucesos, etc., etc., por el Dr. D. Eduardo Orodea, 8.<sup>a</sup> edicion, pag. 166.—35 esperanza de regreso al bien.—36 penuria,—37 mata (la) de moros.—38 ruina moruna.—39 dar origen y establecer.—40 doble objeto, cosa, proyecto.—41 unir.—42 sondear, entre-ver, columbrar.—43 muy á los principios de la entrada de los moros en España.... No se sabe ciertamente el año. P. Moret, t. 1, l. 4, anales, c. 5. n. 5. Discurso panegírico-histórico-moral. etc., P. Areso).—43 sobre-aro.—44 cuadro.—45 noticia de la aparicion.—46 Erdiya bañon lencheago.—47 de oido en oido, auricular.—48 lucha deopinion, parecer, gusto.—49 Anales t. 1. lib. 4, cap. 5, n. 2.—50 cuesta muy pronunciada.—51 hijos de Sancho el mayor, Garcia 4.<sup>o</sup> de Nabarra y Ramiro 1.<sup>o</sup> de Aragon.—52 Diccionario Geográfico estadístico.... t. XII, pag. 634, artículo Pamplona-Basilicas y santuarios célebres.—53 Curso de Lecciones..... etc., pag. 246)Fomentó (Sancho VI, el sabio, de Navarra) las artes, protegió las letras y las ciencias, socorrió á los pobres, dió fueros, rebajó impuestos y gobernó con tal prudencia y tal justicia, que el reino prosperó marcadamente.—54 Diccionario de Sinónimos de la lengua castellana. v. Erigir, fundar, etc.....—55 con-labor: trabajo coetáneo.—56 irutea—irukitzea.—57 Casa de palomas.—58 lechada.—59 armario.—60 nave.—61 Presbiterio.—62 superior punto del arco.—63 bóveda.—64 frente ó frontal de pared.—65 III-Ager-rera.—66 V-Ujué-ren berritzea.—67 dorado.—68 púlpito.—69 de frente.—70 coro.—71 espalderas-respaldos.—72 Prover. c. XXI, v. 1).—73 hermano.—bastardo.—74 selecciones en pro, privilegios.—75 Carta



fecha en Sancta María de Ujué el mes de Julio de la era cristiana 1114, Documento existente en el archivo de la Cámara de Comptos.—76 Anales. t. 1, página 667.—77 guardia perpetua.—78 fiesta suprema. Murió Carlos 3.<sup>o</sup> el Noble el 8 de Setiembre de 1425. Desgraciada muerte, dice el P. Moret, si su vida no la hiciera dichosa..... (Murió repentinamente) Anales t. VI, pag. 560.—79 testamento.—80 Segun el R. P. Areso, en la Cámara de Comptos de Pamplona está el original, y una copia suya antiquísima en el archivo parroquial de Ujué.—81 ar-laban=piedra lisa. v. P. Larramendi.-Diccionario Trilingüe voz, alabastro; bien se puede tambien decir ar-churiya, piedra blanca.—83 atractivos.—83 Anales t. 1.<sup>o</sup>, lib. 4, cap. 5, núm. 9.—84 Es muy concurrida (la villa de Ujué) de todos los de Navarra y los de fuera de ella, con la particularidad de que las romerías que á este santuario se hacen, son todas de verdadera piedad. (Madoz Diccionario..... Geográfico Estadístico..... art. Ujué).—85 hermandad =condicion.—86 El R. P. J. M. Castillo (s. J.) v. Una de sus más excelentes producciones titulada «Apóstoles y Cruceros» y publicada en el «Mensajero de los Sagrados Corazones de Jesús y María» (edic. peq.) correspondiente á los meses Julio y Agosto del 86.—87 procesion, caminata en linea.—83 voz onomatópica *kank* sonido resultante del martillazo p. e. sobre una madera=golpe.—89 linterna.—90 vestido oscuro.—91 nombre de la ría que pasa lamiendo las murallas del «laberíntico castillo» de la ciudad de Olite.—92 Corral del Cariño.—93 Capisayo=cabezal del vestido.—94 ruido de campanas=ensordecedor.—95 fiesta millenar.—96 estandarte: etor liteke eztanda-arte-koa-tik zeren makill-zapi oik solduak eztauden=combate empeñado, casi que les agobia; ari diranian batez ere jarri oi dira zeñ zeñena den ezagutzeko, ta, orregatik da guda omenik aundiynetatik bat ere etsai-banderaz jabe egitia; eztanda-artekoa kentzea.—97 V. Eliza gain ta barren.—98 badajada.—99 El actual Itmo. Sr. Obispo titular, Dr. D. Mariano Supervia, auxiliar del Emmo. Señor Cardenal de Zaragoza, en su obrita «La Virgen del Pilar, su templo y su culto» pag. 1.—100 acaecimientos.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

